

## FRAI BARTOLOME, ITURRI UGARIA

Azken urteotan, euskara garai eta esparru berrietara eratu eta batu behararen batu beharrez, pixka bat gezatu ote zaigun nago. Euskarak kalea irentsi beharrean, kaleak euskara erdi irentsi edota bere arrotz-airez kutsatu ote duen, hiri-kultura eta unibertsaltasun badaezpadako baten izenean...

Bai, euskarak, B. Etxeparek alaiki aldarrikatu zuenez, bere ingurunetik, bere txoko gozotik plazara, kalera, mundu guztira jalgi beharra zuen. Baina lekuz aldatze eta hedatze horrek ez dezala eragin espirituz ere aldatzea, bere-berea zuena galtzea eta barruz hustea. Berea gordeta egin dezala esparru berrietarako sarrera...

Kezka eta arrangura hauek irakin zoroan nire barnea hartzen zutela, idazle zahar, maite baten ondora hurbildu nintzen: Frai Bartolomerengana. Ez dakit zer den zuzenago esatea, haren iturrira etorri naizela ala oihan sarratuan sartu naizela... Izan ere, biak dira irudi ederrak, indartsuak. Berbalduna, hiztun ona eta sermolaria zen aldetik, iturria dator hobeki. Iturriak hizlariaren etorria adierazten digu. Ezin agortuzko isuri ugari berezkoa. Edota iturriak bezain ur garbia ekarri ez arren, zuhaitz sustraiak eta harkaitz puskak leunduz goialdetik indartsu datorren erreka bezala ikusten dut haren hitz-oldea...

Irudimenaren hegotan pixka bat airatuz eta garaian atzerantz eginez, "horrek bai etorria!" esaten harrapatzen ditut Frai

Bartolomeren entzuleak. Askotan esango zuten, bai, hori haren entzuleek. Esan ez arren, ondorioek erakusten dute argien zer zirrada eragiten zien haren hitzak. Ez dago irudimenaren hegotan airatu beharrik. Aski da agiri zahar edo artxiboetako paperak pixka bat arakatzea. Horiatarra begiratu, gertakari bitan harrapatu dugu Frai Bartolome:

Behin, gizon talde handi bat, 50 edo 60, armak hartzeko eta altxamendurako prest zeudela, hitzaldi sutsu bat eginda, burutik kendu zien asmo hori, bake-bakean etxera joan zirelarik... 1821.eko Gabonetan izan zen, hura Isla-ko Basamortuko (Sestao) priore zela. Horrek erakusten duenez, euskaraz sermolari handia bazen, gaztelaniaz ere ez zen batere motela...

Bigarren hau Ondarroan gertatua da: 1819ko otsailaren 7an bilera batean zeuden udal-aretoan eta korrituak ordaintzeko moduaz ziharduten eta aholku bila Frai Bartolomereguna joztea erabaki zuten. Honela dator agirian:

"Y así estando juntos y congregados por mi fe, se hiço presente por su mrd el señr Alc<sup>o</sup> sobre los veinte y quatro mil ms que se recibieron el día diez y ocho de julio del año de mil ochocientos y siete de la testamentaria de Dn Franco Xavier de Armaolea sobre el modo de realizar el pago y si se deben pagar los intereses de quatro por ciento o no de la dha cantidad, y enterado el Ayuntamiento acordó consultar el punto con el R.P.Prior Fr. Bartolome de Santa Teresa del Combenito de Carmelitas descalzos de la Villa de Marquina; y para el efecto pongan el Señor Vicario como Testamentario de dha testamentaria, esta Villa y algún otro vecino que quiera, los datos que tubieren por combenientes en su razón, y con lo que resolviere dho P.Prior se conforme esta Villa"

Hemen ageri denez, Frai Bartolomek, batez ere sermolari eta idazle zen aldetik, geroago eta itzal handiagoa zuen Markina eta inguruetan; gizon zentzudun, aditu eta prestutzat zuten. Argi ikusten da hemen Ondarroako herri-ordezkarri haiek nolako begirunea zioten karmeldar sermolari eta idazleari...

Alabaina, sermolari eta idazle honen ondora hurbiltzean, iturri ugari eta korronte handiko erreka batera ez-eze, oihan sarratu baten barnean sartzen naizen irudipena ere badut. Oihana bizitzaren seinale da. Bizidun ugariren sorleku, bazkatoki. Askatasun berezkoaren erreinua; izadiko nahaste harmoniatsuaeren altzoa... Frai Bartolomereng liburuetan euskara bizi, adierazpen indartsu eta molde oneko bizkaiera zaharraren eredu aurkitu dut. Euskara bizia diogu, eta ez dugu esandakoa ukatuko, baina, ustez, J.A. Mogelek sortutako eskolaren ukitua ezagun du. Dena dela, idazteko forma, konbentzio eta joera askotan bat etorri arren, Frai Bartolomek bere nortasuna du eta zail da haren hitz-etorri ugaria, esaldi indartsu eta askotari-koak gure gramatikaren eskema estuetan sartzen. Horregatik, oihan baten aberastasun joria datorkit gogora.

Etorria aipatu dugu arestian. Ahozko hitz-jarioaz esaten da bereziki. Hizlari on izatea da bat eta idazle on izatea beste bat. Frai Bartolomerengan jarduera biek bat egiten dutela, eta batean bestean bezain bikaina dela esango nuke. Ofizioz ere predikari eta idazle zen era batera. Hala ere, haren idazkiei sermolari-grazia eta gatza darie. Euskaraz idaztean nahiko erraz dabilela dirudi. Berak ere hala adierazten du irakurleei zuzenduriko sarrerako atalean. Irizpide argiak ditu nola idatzi behar duen. Metodologia kateketikoaz, darabilen euskaraz... gauza interesgarriak esaten dizkigu. Euskarari dagokionez, gehienek ongi ulertzeko eran idazten duelakoan dago. Bere herriko euskara darabil, berak dakiena, barnetik dariona. Dena dela, erlijio-gaietako euskara, kutsatua eta nahiko mordoiloa dela diosku. Elizgizonen zabarkeriaz euskalgaiztoak jota omen dago arlo hau. Bestetan ez bezala, arlo honetan, hitz mordoiloen bitartez izan ezik ez omen du herriak ulertzen kristau-doktrina. Horregatik ezinbestean sartu dituela diosku, gogoz kontra, sartu ere, hainbat hitz arrotz. Lexikoa, beraz, ez darabil berak nahiko lukeen bezain garbia, erlijio-gaietan, edukia ongi jasotzea jartzen duelako euskara onaren gainetik. Hona hitzez hitz Bartolomek dioskuna:

*"Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindubeena, ederreena, ta eztsitubeena izan ez arren, izan leiteque, Euscaldunen baztar bateti bestera, eche guztietan dei eguinda, iragota, cer nai daven, onduen zaarra, ta gaztiai aituco deutseena, ta adierazoco deutseena. Alan ustie dot. Ta jazo jat Naparruan, Quiputzetan, ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeetan.*

*Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure Eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira gueure erruz, ervesteti etorrijac. Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc Eleisa guizonoc verba ascotan naastan, ta ezaindu dogu Eusqueria. Gueuri entzunda, daquijeez baseerrietacuac Jaungoico Omnipotentia, Poderosua... Virginia Clementisimia... Misericordijosa... Mandamentubac... Absolvicinioia... Doloria..., Errestitucinioia... Ta beste onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ez daquijeen euscaldunac, euren echeetan, ta artu emoneetan biar daveen guztia, esaten davee eusqueera garbijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gaistuuac. Ez da au eusqueeraren erruba, ezpada gueuria. Ta, ain dauqueez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, euraquin ezpada, aituten ez davee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste verba batzuc icasiquitzuneetan. Bada Cristinautzaco eracutsijan zuten aituten emotia leenago da, verbeetan eracustia baino" (Icas. I. VIII-IX).*

Kristau-mezua euskaraz gauza berria dela ere badiosku; horregatik, ageri diren izenak ere herriak direla eta haietariko asko kristautasunarekin batera urrunetik etorriak. Hauetariko izen hartuak euskara garbira aldatzea on den ala ez jakintsuek esan behar dutela. Ez litzatekela zeregin zaila:

*"Eguitja da, Jesu Cristo, gueure Jaunagan sinistutia, ta ari darraicon guztia, dan leguez cbito barrija Eusqueriagazco; gueure cristinautzaco gauza harri ascoren icenac bere barrijac dira. Ta areetati ez guicbi cristanadiagaz beragaz Urrin errijetati etorrijac. Onetarico ija icen artubac; bautismua... Confirmacioia... Penitencija... guere Eusqueera garbira aldatutia, ondo litzateequian, edo ez, Jaquitunac esango davee.*

*Ez da ain biar gacba, eusqueera garbico iceneetan imintia"*  
(Icas. I.X)

Bere eskuizkribuaren sarreran dioena jakingarria da eta umore-tantaz bustia. Bere irakatsietan, garai hartako sermolaria-  
airea hartuz, bekozkoz diharduela dirudi... Halakoetan ohi ze-  
nez, irakatsi garratzak, trumoi-burrundaran ehoak, infernuaren  
zemaipen oretuak dakarzkigu maiz. Orduko sermolarien  
ezaugarria zen, nonbait.

Sarrera honetako parrafo batzuetan, berriz, bere izaera umo-  
retsua ere agertzen digu; barrurantz barre egiten duen baserri-  
tar maltzuraren umorea.

Geroko liburuetan kontuan hartzeko, irakurleen iritzia jakin  
nahi luke; zehatzago esanik, lehenengo honetan aurki ditzaten  
faltak adieraztea benetan eskertuko lukeela. Eskuetan den bi-  
tarte nahi den erara molda daitekeela: Gaiak laburregiak ba-  
lira, luzatu; berbeta astuna balitz, arindu; arinegia balitz, pisu  
gehiago eman; giputz-aire batekin hobe balitz, hartarako ere  
prest dugu. Bizkaieraren indarra hobeki agertzearen, letra bi-  
koitzak jarri dituela diosku. Ezer onik badu liburuak, Jainkoari  
eskerrak emateko; eta batere onik ez balu, inori ere ez... Hona  
hitzez hitz, Bartolomek dioena:

*"Liburubac poz gueijagogaz erosi, ta iracurri ditezan, euren  
asieraan imi oi jacuez lora andi batzuc Yracurliarenzat.  
Onaco asierai beguiratuten bajacue, (Quevedo batenac ichi  
ezquero) liburu guztiac dira onac, edo oneenac. Alperric gue-  
ro mundu guztiac diardar eguingo dau liburu a gati: bapere  
gauza ezdala, edo iracurtia merecietan ezdavela; asieraco  
herbetan chito guztizcua izango da. Esaten dotsut bada,  
Yracurli, bene benetan, neuri au jazo daquidan ezdodala gu-  
ra. Neuc arguitara etarataco liburuba chaarra dala esatia,  
echat niri toqueetan. Baña ona dala bere ezdot esango.  
Esango dot: Gueure eusqueraan oraindino onetaricoc urten  
ezdavela. Esango dot: Palta asco daucazala. Esango dot:  
Obatu leijala. Esango dot: Quipuz-Erri ascotaraco bere ezdala.  
Ta dinot: Mandamentuben bigarren partia, Sacramentuben,  
ta Creduaren dotrinac, ta beste sermoe gauza batzuc arguita-*



# JAUNGOICUAREN

AMAR AGUINDUBEETACO

AZQUENECO BOSTEEN

ICASIQUIZUNAC,

AITA PRAI BARTOLOME SANTA

*Teresae Marquinaco Carmen Ortozeco*

*Predicadoriac ateragaz.*

II. ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ.

*Iruñean*: Rada Alargunaren Liburuguillaan.  
1817 Urtean.

*ra etarateco, chito nai neuquiala, lelengo onen paltaac ezautitia. Ez neuc asco icusten ez deusadazalaco; ezpada bestiac cein pallazat euquico daveen, ezdaquidalaco. Dotrinac laburrac badira, luzatuco nituque. Berbeeta astuna badauca arinduco neusquijo. Arina badauca, pisu gueijago emon bere bai. Quipuz aire bategaz oba balitz, à bere emongo neusquijo, guztiz ondo ez arren. Enpin, edocein bere modutara girau lei, escubetan dauan artian, balequi batec guztien, edo gueijenen gustua, cein dan. Claru gaucia esatiarren, (bada ezda etara jaquitunai eracusteco; ezpada jaquitunac daquijena, ezdaqujenai eusqueraz erreztuago eracutsi daijuen) ta Vizcaico berbeetiari daucan indarra emotiarren, letra batzuc doblauta imini dira, gainian erraijagaz baño obeto eichita. Gauza onic badauca, Jangoicuari esquerrac emon; bapere ezpadauca, inori bere ez. Agur”.*

Hona arte, Frai Bartolomeren ondora etorritz, gain-gaineko pentsamentu orokorrak, usteak, haren idazkiek sorrarazi dizkidaten iradokizun xumeak, barnean piztu-itzalika ari diren ideia puskak, ordena ezarri ezinik nahasian erne zaizkidan gogoe-tatxoak. Hori da guztia. Ondorengo lerroetan, labur bada ere, haren euskararen ezaugarri batzuk adierazi nahi nituzke. Hainbeste xehetasun, albo-adarretakoak direnak, alde batera utziz, baina enbor nagusikoak, Frai Bartolomek bere-bereak dituenak aintzakotzat hartuz...

## I. GRAFIA

Grafiari dagokionez, ez du bokaletan azpimarratzeko gauzarik. Bokal guztiak bere ohiko balioaz darabiltza. “y” ez du erabiltzen ez hitz barnean eta ez amaieran. Hitz barnean yod deritzana aurkitzen dugu, baina “j” grafiaz beti ere. Hitz hasieran, “y” badarabil; *ya* idazten du soilik horrela. Forma honetan bil-tzen ditu hiruzpalau esanahiko elementuak:

- Denborazko partikula, gaur egungo euskaran *ja* / *jadanik* forman erabili ohi dena:

*“Ya dagoz dantza atan guizonezcoric edu emacume, edo mutilic edu nesca” (Euscal-Errijetaco..., 66).*

- Zehargalderazko elementu izan ohi da. Gaur egungo euskara estandarrean "ea" forman erabiltzen dena:

*"Ceubec pensau, neure cristinaubac, ya errazoa dan, edo ez" (Icas. III, 253)*

- Inperatiboaren ondoren, eskuarki bokatibo bat tartean dela, harén indargarri erabiltzen den interjekzio gisakoa:

*"Ya betoz Teresaren aurrera ezin al guztia" (Icas. II, 293)*

- Bai... bai, nabiz... nabiz eta antzekoen ordeztan ere erabiltzen du:

*"Ya pamparrerijaz, ya gorrotaz, ya amodijo chaarrez, ya ecandu gaistoz" (Icas. I, 113)*

Kontsonante batzuen erabileran, dirudienez, ez du arau zehatzik eta grafema bat baino gehiago darabil fonema berarentzat. Esaterako: b/v; c/z; tc/tz...

Joera batzuk, hala ere, oso garbiak dira. Esaterako, lexema **u** nahiz **i** bokalez bukatzen denean, beti erabiliko ditu **b** eta **j** hurrenez hurren, lexemaren eta morfemaren artean lotura egiteko: *argisuba*, *argiija*. Adizkiekin aditz-izenak, erlatibozkoak eta eratorriak egiterakoan eta hitz barnean ere grafema hauek ageri ohi dira Frai Bartolomerengan **u** nahiz **i** bokalen ondoren: *cituhan*; *escatuten descubez* / *abijada baten*; *equija*; *bijotzeco*.

Aditz laguntzaile iragankorrean b/v-ren alternantzia ageri da, baina **v** da gehien ageri dena: *davenac* (*dauananak*, hark); *daveenac* (*dabenanak*, haiek).

Behin edo behin **u** erabiltzen du bokal artean **v** nahiz **b**-ren ordeztan: *Cristandade guztia desondreetan daueen gachac.* / *eu-reen gainian verba eguin daueenac.* / *besteen desprecijua eracusten daueenac...*

Gaztelaniazko balio berberaz darabil **gue**, **gui** / **ge**, **gi**: *guei-jago*; *gueure*; *aguindubac*; *izan daguija* / *gentiagaz*; *evangelijo*; *gentilen*; *gera bigunagaz*; *Eregiac*; *Erliginoe...*



ren artean ere: *zeuc* ...  
*zece* neen; *tintiagaz zetacatuta*; *icasi zifubeen*, ...  
*zintzoro*; *Ceubec eracusten deutzazu*; *icen artubac*; *gaucja* da;  
*vide zucenetati*; *viziicja gordeetia gaiti* (...) Jakina, hau **e** eta **i**  
bokalen aurretik dauden kontsonante frikari eta afrikarietan  
gertatzen da soilik.

Obra osoan behin agertzen da **tx** kontsonantea: *Gaixuac*  
*osasuna*, *gosiac jana*, *otzac berua*, *biltxac jantcija*; gainerako  
guztietan beti darabil **cb**.

**H**-rik nekez ikus daiteke, kasu bakan batzuetan izan ezik.  
Honako hauetan darabil:

- "humilde", "humildade" ... hitzetan; interjekzioetan: **dh!**, **dh!**;  
"herege" hitzean (hau "h" gabe ere badarabil): *Baita beste he-*  
*rege ascorenac bere*. / *Judegubac*, *Moriuac*, eta **E***regiac*, *batzuc*,  
*pederic*, eta *bautismoric ezdauqueelaco*.

Beste horrenbeste eta areago esan daiteke **f** letraren erabile-  
raz. J.A. Mogelek luze dihardu *Peru Abarcaren* sarreran kon-  
tsonante hori euskarari arrotz zaiola azaltzen; ezaguna da  
Pedro A. Añibarroekin honetaz izan zuen eztabaida ere. Frai  
Bartolome Mogelen eta Markina aldeko joeraren bidetik doa.  
J.A.Mogelek *Peru Abarcaren* sarreran ematen ditu, adierazi du-  
gunez, **f** kontsonantea **p**-z trukatzearen aldeko argudioak. Frai  
Bartolomek Icas. II, "Iracurfiari" deituriko sailean hitz egiten du  
honetaz, baina **p** dela euskararena eta ez **f** dioten jakintsuen  
iritzia onartzen du bete-betean, bere argudiorik eman gabe.  
Honela dio: "Eguijja da, erantzun eustan batec: **P**. iminten  
nevala **f** lecuban: Baina, jaquitunac dimenez, ta euscaldun  
utsai entzuten jacuenez, ez dauca **f** cer eguinic gueure eus-  
queran".

"Uriartek, Astarloak eta Juan Jose Mogelek ez dute engara-  
rik, maileguzko hitzetan behintzat, "f" erabiltzeko. Prai  
Bartolomek zeharo bazterten du kontsonante hori, eta "f" dun  
maileguzko hitzak ugari erabili arren "p"z trukutzen ditu beti:

opendidu, oitura impamiac, propeta paltsuen, San Francisco Sales, opicijoz, popuertza, apicinoia, paltia, paltau, piestia, pabore, pandanguan, compesetan, prutia, copradijeetaco, pornicacinoia, pamelija... empin”<sup>1</sup>.

Dena dela kasu bakan batzuetan badarabil **f**, esaterako “Faraon” hitzean: **F**araonen escu gogorretati Isrrael librau zanian. / Egitoco **F**araon Erreguiagaz baino.

Baina hitz hau maiz agertzen da **p**-z idatzirik ere: *Mofifsec ez eutsan inos esan **P**araoni. / Iru eguneco vidian juan biar evala bere gente guztiagaz, Jaungoicuari mendijan esquinija eguitera, esaten eutsan **P**araoni.*

Izen berezietan, ez beti: **F**erraris. / R. P. **Fr.** **F**rancisco Antonio de Palacios. / Milango Obispo Jauna, **F**rancisco Geneto.

Baina **p**-z maiz agertzen du “Prancisco”: *San **P**rancisco Salesec Philoteari. / San **P**rancisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz eragotzi dantzan egutia.*

**K** grafema ez du erabiltzen. Honen ordez **ca**, **que**, **qui**, **co**, **cu** darabiltza. Bere obra osoan behin dakar soilik eta bera beti horrela ezagutzen dugun hitz arrotzean: *Onen ondoric esaten dau **K**yrreeleison, ta Christeeleison...*

**Ss** ere noizbehinka ageri da, baina gutxitan eta ez da adierazgarria. Nahi gabe itzuri zaizkionak dirudite. Hona hemen, latinezko hitzetatik at, agertzen diren guztiak: *Santo Tomssegaz. / Eleissan Santubac ondrauta. / Jaungoicua bera da asseratic, eta amairic ez daucana. / lossatu even naturalencia. / assarre aldi baten ondoric. / Ta igortzten deussaz belarrijac...*

**Ti** “battasuna” izenean dator hiruzpalau aldiz. Eratorrietan lexemaren bukaerako kontsonanteari eusteko duen joeragatik izan liteke... Bokalekin ere badakigu horrela jokatu ohi duena,

<sup>1</sup> L. BARALAZARRA TXERTUDI, *Markina-Xemeingo euskara aztertzen, Euskera XX-XI* (2. aldia) (1986, 1)

"a" berezkoa duten hitzetan ageri-agerikoa denez: nescaac; battasunaren lotugarrija. / alcarregaz dauquen battasuna. / guztiac dauqueen battasuna. / senar emazten battasuna...

**X** (ixa), hizki nahiz hitz zehatz eta jakinetan darabil; ez forma adierazgarriak, txikikariak etab. sortzeko. Hona grafema horrekin idazten dituen hitz batzuk: ixtoquiija, ixto (eta eratorriak), ixil (eta eratorriak), exemplu, examina, examinau, luxurija, goix, goixtarra, arixe (beguiria), axe (huraxe), araxe, oraindixe, alacoxiac, baixen, bilaxic, gaixo (eta eratorriak), muxilla, aixe, aixetsu, aixaatu, proximua, quexa, quexau, baxubac (apalak), elaxa, uxalagaz, Benxamin, Xavier, Alexandro, Saxonia, Felix, muxac (ibaico zazpi muxac), ituxurecua, uxaatuta, Excomulgauba, Caxia (Jesus gordetaco Caxia), Exorcistia...

**X** kontsonantearen aurrean, batzuetan, **i** bokala tartekatzen du eta beste batzuetan ez. Hau ez da, ziur aski, grafia kontu hutsa; bizkaierazko ohiko hotsei grafiaz ahalik eta zehatzen erantzun nahia nabari dela esango nuke, aitzitik: (...) goxian. / goxeric arrats. / goxic gueijena. / goxaago contuban jausten dira. / goxago edo berandubago.

Baina: goix parteti. / jaquiturija goixtarra gaiti. / goixeti. / gacheraco goixtartu. Dena dela, **i** gabekoak askoz ere ugariago dira.

"Gaixo" eta eratorriak, ordea, honela erabiltzen ditu ia beti. Inoiz edo behin "gaxo"...

**N**-ren ordeaz **in** idaztea eta **il** eta **ill** nahiz **ll**-ren arteko alternantzia, berriz, grafia kontua dela dirudi, haren euskaran horrelakoetan sabaikari egiteko joera nabaria baita. Behin edo behin agertzen da **n̄**. Askoz ere ugariago **in**. Baina darabil ia beti; bain̄a behin; bain̄a hamasei aldiz. Baino darabil gehienetan; bain̄o hiru aldiz; bain̄o hogeita bi aldiz.

"L"ren kasuan, ez du joera zehatzik. Dena dela, "ilgarri" behin bakarrik agertzen den bitartean, "illgarri" txitean-pitean dator; Gauza bera esan genezake "ilun" hitzari buruz ere: bi

aldiz agertzen da “l” bakarraz: *buruco **il**untasuna. / limbo **il**unian*; “l” bikoitzaz, berriz, sarri. “Mutil” hitza, bokala ondoren duela, hogeita hiru aldiz dator **il**-z eta bost aldiz soilik **ill**-z... “Ibili” hitza horrelaxe dator ia beti. Bi aldiz dator soilik **ill** grafiaz. Beraz, **-il** da grafia normala hitz honetan. “Neskatila” hitza behin dator soilik *nescat**ila***; eta hamahiru aldiz *nescat**illa***. Hau da grafia normala hitz honetan. “**Mila**” hiru aldiz dator; “**milla**” hirurogeita zazpi aldiz. Beraz, hau da grafia normala.

### Hitzen elkarketa eta banaketa

Hitzen elkarketa eta banaketa, garaiko joera, konbentzio, erabaki eta araei loturik izan ohi da. Beraz, aldakorra da.

Ezkerreko nahiz eskuineko hitzari loturik idazten ditu gehienetan ondorengo hauek: **ez, ezin, oi, ei, cein, bere, biar, bat** eta laguntzailea bere aditzari loturik: *ez**d**aquit / ezin**l**eguiz / **o**-**d**arraico / **ad**inuela / **cein**dan / ez**o**r**e** / edol**a**bere / **biar**-**d**au / **puscab**at / egu**nd**ozu / **usted**ot*

Bereiz edo banaturik idazten ditu honako hauek: **gaiti**, beti bereiz, “orregaiti”, “cegaiti” hitzetan izan ezik; **aldi**, testuinguru batzuetan aurreko izenetik bereiz idazten du; esaterako “guizaaldi” idazten du ia beti; lau bat aldiz “guizaaldi” eta “guizaldi” behin ere ez; **bait**, bereiz idazten du “nos bait” denborazko adizlaguna, baita “celan bait” / “zelan bait” ere; “-bait”dun beste hitz batzuk bietara idazten ditu, loturik eta bereiz; **ainbeste**, lau bat aldiz idazten du bereiz; loturik idazten du ia beti, “b”ren aurretik “m” duela nahiz “n” duela; **eguin/eguite**, izen gisa, aurrekoari loturik gehienetan, baina “uts eguite” nahiz “utseguite” berdintsu darabiltza. “Cereguin”, ordea, ia beti darabil loturik; **cein bat; ain bat**, bietara agertzen dira; baina toturik gehiagotan, “b”ren aurretik “m” duela nahiz “n” duela; **ez bada**: Juntagailu adbertsatiboa bereiz nahiz loturik idatzi ohi du; **ez da**, ezezko esaldi kopulatiboetako adizlaguna, oraingo usadioz “ez eta” / “ezta” idatzi ohi dena, bietara idazten du. Loturik idazten duenean ere, ez du aldaketa fonikorik

agertzen idazkeran; beste horrenbeste esan dezakegu “ez bada” / “ezbada” adbertsatiboaz ere; **eztabaida**, hiru zatitan idazten du: **ez da baidia** / **ez da baidaco**; **nora ezeco**, era askotara idazten du: “nora ezeco” / “noraezeco”; “nora ececo” / “noraeecco”... dagokion kasu-markarekin.

-Atzizkia aurreko izenetik bereiz eta hau bere kasu-markarekin idazteko joera nabaria du. Atzizkiak diogun gauza bera esan genezake deklinazio-atzizki eta atzizki bezala erabili ohi diren zenbait elementuz ere, esaterako: -gana, -(r)en beian, -pian, -guin, -guintza, -guino, -era, -zale, -tegui, -une, -gaiti, -aldi...

## II. FONETIKA

### 1. Bokalak

J.A. Mogel eta Frai Bartolomeren idazlanei iraztean begiratzea aski da bokalen bikoizteak ugari dituztela ohartzeko. Ekialdeko bizkaiera darabilten idazle zaharrak bat datoz horretan. Jakina denez, grafian, fonetikan, morfologian, lexikoan... elkar janzten dute J.A. Mogelek eta Frai Bartolomek.

Grafiaz jardun dugunean, “u”ren ondorik bokala datorrenean, loturazko “b” tartekatzen duela esan dugu; eta era berean, “i”ren ondorik bokala datorrenean, “j” edo yod loturazkoa sartu ohi duela. Honek guztionek bokalen harmonia deritzon gairu garrantzitsua:

Hiatuan, hots, diptongoa osatu gabe elkarren ondoan gertatzen diren bokalen artean aldaketak eragiten dituzte zenbait idazlek, kidekoak ez diren bokal-bikoteen ordez kidekoagoak ezarriz. Hau, lexemari artikulua eransterakoan gertatzen da batez ere, baina baita bokalez amaitutako lexemari bokalez hasten den morfema gehitzerakoan ere. Hitz barnean bakanagoa da, baina hitz barnean ere hala gertatu ohi da, adibidez, erroan “-oa-” nahiz “-go-” duten adizkietan “-ua-” eginez: *nua* / *emateco* / *ezbajua* / *juango balira* / *eguan* / *daguanian* / *juateco*...

Ikus ditzagun bokal ezberdinez amaitutako lexemari “-a” artikulua eransterakoan gure idazleak nola lortzen duen bokalen harmonia hori:

- A + a = -ia (sing.) nesquia
- A + ak = -aac (pl.) nescaac
- E + a = -ia (sing.) echia
- E + ak = -iac (pl.) echiac
- I + a = -ija (sing.) choriija
- I + ak = -ijac (pl.) choriijac
- O + a = -ua (sing.) gurasua
- O + ak = -uac (pl.) gurasuac
- U + a = -uba (sing.) buruba
- U + ak = -ubac (pl.) burubac

Ondorio hauek atera daitezke eskema honetatik: “a” itsatsia duten hitzei artikulua eransterakoan, singularrean, bizkaierazko joeraren arabera, *-ea* egin beharko zukeen: *alaba* *alaba*, baina inguru honetako idazle zaharrek ez dute onartzen bokal bikote hau eta *-ia* egingo dute, pluralean bi bokalei -lexemarenari eta artikuluenari- eutsiz. Jakina, inesiboan ere gauza bera gertatzen da: *plaza* *ua* (sing.); pluralean, berriz, -A + e = -ee: plazaetan = *placeetan*.

“-Oa” bikotea ez du onartzen gure idazleak, *ua* eginez. “Oe” ere aldatu egin ohi du, *ue* eginez, latinezko “-one(m) / -tione(m)” atzizkidun hitzen maileguetan izan ezik. Hauetan, bokal arteko “n” galduz nahiz tokiz aldatuz, *oe* egiten du: *sermo*, *ocasio*, *cooe*, *errazoe*. “Ocasino” bi aldiz itzuri zaio horrela: *edo pecatuco ocasio urrecua dala* (*Euscal-Errijetaco...* 10). / *pecatu mortaleco ocasio urrecuac izatia* (*Euscal-Errijetaco...* 120); “itzuri” diogu, obra osoan barna bi aldiz soilik datorrelako eta “ocasioe” berrogeita zazpi aldiz...

Artikulua eransterakoan, lexema “e”z amaitzen den gainerako hitzetan bezala, *ia* egingo du, J.A. Mogel eta inguru honetako idazle zahar guztiek bezala: “bide” *bidia*, “etxe” *echia* egi-

ten dutenez, "ocasinoe" *ocasinda*, "erliginoe" *erliginda*, "diversinoe" *diversinda*, "devocinoe" *devocinda*... Beraz, "-oe", salbuespen hauetan izan ezik, *-ue* egiten du: *Ta au esaten jacue cristinaubai. / dinue dantza zaliac. / Ta gurasuac galarazo ezin leguiue umiari estaduco libertadia. / Ezin umiai emon zinaiue aziera peligruzcuagoric codicijarena baino. / gurasuac bere ezleusquiue seina besuetara emongo, edocein lelengo aguri dani...*

"-Ea" ere, esan dugunez, ez du onartzen, eta *-ia* egiten du beti. Berez "-ia" denean, yod bat tartekatzen du: *-ija*; baita hitz barnean ere; "i"ren ondoko bokala beste edozein izanik ere, yod hori tartekatzen du: *ija moneco. / terdjuan. / juijjo zcoc.*

"Guztia" maiz darabil, eta horrelaxe idazten du, zazpitan izan ezik; "guztija" idazten duen zazpi horiek *Icasiquizunac* saileko I. liburukian datoz 13, 40, 86, 166, 188, 191 eta 200. orrialdeetan, hurrenez hurren; gainerakoan, ehundaka bider "guztia". Beste bi hitzetan ere ez du beti betetzen yod erabiltzeko joera hori: *neurria* (behin), *neurrija* (lau aldiz): *Provincia* (bi aldiz, bietan Gipuzkoa esan nahi du); *Baina Vizcaico, ta Provincia co piesteetan au, ta utsa bat dira. / Vizcailjan, ta Provincia n. Provincia* (bi aldiz, batean Gipuzkoa esan nahi du eta bestean herrialde bat): *Nic incentau bagaric, daqui gentiac ondo, onetarico Ermita asco dagozana Vizcailjan, ta Provincia n. / ¿Gueratuco ete da erri baten, provincia baten, edo Erreinu baten lotsarizco pecatubaren pestia?*

Berez "-ua" denean, behin eta berriro esana dugu, loturazko "b" edo wau deritzona tartekatzen duela. Honetan, nik dakidala, ez du salbuespenik. Beraz, lexemaren bukaera "u" duten hitzak eta "o" dutenak ongi bereizten ditu. Esaterako, harentzat argi dago "desonestu" dela hitza eta ez "desonesto", *desonestubac* idazten baitu. "Lutu" dela, eta ez "luto", *luuba* idazten baitu...

Bokalen bikoiztea, goiko eskeman ikusi dugunez, "a" itsatsiak eragiten du, gehienetan, idazle hauek lexemaren amaiera-

ko “-a”ri eta deklinazio-atzizkikoari, biei eusten baitiete: *aa* singularreko inesiboan: *plazaan*, baita pluraleko absolutiboan eta ergatiboan ere: *nescaac...*

“A” itsatsia dutenetan eta lexema “-e”z amaitua dutenetan, *ee* egingo digu pluraleko genitiboan eta pluraleko tokizko kasuetan: *nesqueen / echeen / placeetan / placeetaco / echeetaruz / eguitaetan / dantzeen / dantzeetan / verbeetan / eleiseetan / legueetan* (hau euskara estandarrean bezala) etab. “A” itsatsia dutenetan honako hau gertatzen da: -a + e = ee: plaza + etan = *placeetan*. Gauza bera gertatzen da partizipioa “-au” duten aditz-izenetan ere; ia guztiak dira maileguzko hitzak, partizipioan “-au” amaiera dutenak, garai zaharragoetan, adituek diotenez, bizkaierazko joerarari jarraituz, “-adu” izan eta bokal arteko “d” galduz “-au” izatera etorri direnak. Hona adibide batzuk: *olgau > olgueeta; / desondrau > desondreetan; / condenau > condeneetan; / contau > conteeetan; / predicau > prediqueetan; gustau > guseetan; > gorde > gordeetan; mudau > mudeetan; combidau > combideetan; / quesau > qeseetan; pen(t)sau > penseetan (penseeta moduba); usau > useetan...*

Ez dugu uste “gorde”, garai zaharragoetan, “gordadu” > “gordau” izango zenik. Gainerakoetan: *-adu > -au > -a > -a + -etan = -eetan*. “Gorde” partizipioa salbuespena da forma alde-tik eta “-e”z amaitzen den edozein hitzen antzera egiten du: “eche” > “echeetan” bezala...

Dena dela, arau hau ez du beti betetzen; batzuetan gutxi-giz eta besteetan gehiegiz huts egiten du; ia beti gehiegiz. “Gutxi-giz” diogunean, beraren arau edo joerarekiko esan nahi dugu gutxi-giz, ez euskara batuarekiko. Esaterako, gutxi-giz: *dantzetan; / dantzetara*, baina bi “e”z askoz ugariago. *Olgueta* askotan agertzen da honela, baina bi “e”z gehiago. “Eleisa” hitza, ordea, bokal-bikoitzik gabe askoz ere maizago ageri da: *eleiseetan / eleiseetara*; baina *eleisetan...* maizago; *eleisan / eleisaan* bietara... Pluraleko absolutiboan eta ergatibo-



an behin ere ez da agertzen *eleisaac*. “Gorde”ren aditz-izenak bietara datoz, eta bietara ugari: *gordetaco / gordeetaco; gorde-tia / gordeetia; gordetan / gordeetan...*

Gehiegizko bikoizteak dira, hala ere, nabarmenenak: *cere-guineen, laneetan, gueijeenac, santubeen, cristinaubeen, zorrotzeenac, indartsubeenac*.

Haren arautik at dauden bikoizteak adizkietan aurkitzen ditugu, agian, bestelakoetan baino gehiago. Analogiak daramala dirudi horretan huts egitera. Esaterako: (...) *eguiten davela pecatu* (hark), baina (...) *eguiten daveela pecatu* (haiek): “*ala pecatu mortala, ala veniala eguin daven*” (*Euscal-Errijetaco...* 98) (hark); baina “*plazaan piestia eguiten daveenac*” (*Euscal-Errijetaco...* 53) (haiek). Kasu hauetan, “u”ren eraginez ondorengo bokala gradu bat ixten denez gero, bikoiztea bereizgarri da; baina beste batzuetan, honen analogiaz edo, behar ez denean ere egiten du... Iraganean ez du ondoko bokala ixten; beraz, honako bikoizte hau ez legoke zuzen: “*ez da esaten Apostohubac saldu eve~~l~~a, ezbada Apostolu batec saldu evala*” (*Euscal-Errijetaco...* 167).

“I” bikoitza honako hitz hauetan dator batez ere: *eguiija, miina, priisia, jadiichi, Ostiija, aleguiinaz, eguiiten / eguijezu, iia*. Lehenengo biak maiz agertzen dira. “Eguiija” bietara dator eta sarri. “Miin” (“mihi”) idazten du beti alde batetik, “min”, “mingoch”, “minbera” etab. bestetik.

“Eguiija” hainbeste aldiz agertzen da; ebakera sabaikaria markatzeko baliabide bat izan daiteke, horrelako guneetan baitator ia beti... Kasu batzuetan argi dago bokalen asimilazioa gertatu dela: *priisia* (< priesia??), *jadiichi / jadiisteco* (< jadeichi / jadeisteco??); eskuizkribuko *barrin barri* (< barrien barri < barriren barri??)...

“U” bikoitza ere agertzen da noizbehinka. “Suur” eta “zuur” normalak dira, baina “luur” ezin konta ahala aldiz dator Bartolomeren liburuetan barna; “lur” hamar bat aldiz dator.

Hemen, beharbada, egitura labur eta ahuleko hitzak indartzearen jarriko du bokal bikoitza...

Beste hitz batzuk ere hala ematen dizkigu eta bestela, azalpen zaila lukete... *Luur, chaa, laarregui, belaarri...*

Beste kasu batzuetan, "edaari", "lotsaari", "jaaten" eta edaaten" hitzetan, esaterako, erroaren marka eta atzizkiarena hobeki bereiztearen izan liteke. Gauza bera "litzaateque" adizkian ere.

Behar ez denean, bere idaztaraua bete gabe, bokal bikoitzak sartzearen arrazoiak hauek izan daitezke:

- Hitzak "a" itsatsia duen ala ez ziur ez jakitea.
- Adizkietan bereziki, bokal bikoitza bereizgarri eta beharrezko dutenen analogia.
- Egitura labur eta ahuleko hitzak indartzea.
- Hitzaren erroa eta atzizkia hobeto bereiztea.
- Inguru honetako fonetika-joerari hobeki erantzutea.

Hala ere, gai honek, oso nabaria baita, beti erakarri izan du hizkuntza gaietan adituak direnen arreta. Arestian esan dugu Ekialdeko bizkaiera zaharra darabiltenek eskola antzeko bat sortu zutela, J.A. Mogelen aitzindaritzapean, ziur asko. Baina honelako joera finkatuak ez dira gehiagoko barik sortzen. Inguru honetako ahoskeran oinarritzen zirena ziurtzat jo dezakegu. Frai Bartolome bera ere ez zegoen hain sendo idazkeraren eta, bereziki, bokalen bizkoiztearen arazo honetan. Gehienetan bokal bikoitzak egitera jotzen du, ustez herrietako euskaldunik gehienek joera jarraituz eta, bide batez, hiztunen baitan zeuden arau batzuk betez, esaterako, "a" itsatsiarena... baina horretaz beren-beregi gogoetarik egin gabe. Dena dela, zalantzak zituen eta, bokal bikoitzen alde bazen ere, zalantza horiek eraginda, bietara jokutzen du. Hurrengorako, gai hauek jakintsuak direnen iritzia entzuteko prest dago, hala ere. Honela diosku hitzez hitz:

*“Tracurlaac icusico davee Icasiquizun oneetan, verba batzuc dagozala bitutaco letriagaz: aa, ee, ij, arimaan, deutseen, jadiichi... Beste batzubetan verbac eurac, ta euretaricuac letra bacarragaz: poltsan, dave, eguija... Euscal erri guztietaco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui: verbiaren luce laburra, ascotasuna, ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. Menturaz ascoc erichico deutsa astun. Baina verbeeta guztien gacha da au. Urreenguan entzungo da jaquitunen erichija”.*

Gaztelaniak hain bereak dituen “ie” eta “ue” diptongoak bereziki arrotz zaizkio euskarari. Hala ere maileguzko hitzetan, bizkaiera mintzatuan batez ere, nahiko sartuak daude horrelako hainbat hitz. Gure idazleak ere badarabiltza; “ie” dutenetatik bitxiena, agian, bizkaieraduna ez denari “piestia” forma egingo zaio, beste euskalkietakoek *festa / besta* erabiltzen baitute; maiztasun handikoa da, gainera; haren lehen liburuan txitean-pitean agertzen dena.

“Ue” diptongoa dutenen artean bada beste forma bat nahiko bitxia eta Bartolomek ondo hartua duena: “popuertza” / “popuertzacua”... Forma hau *f / p* kontsonanteen trukaketa dela eta ere maiz aipatua da. “Errespuesta” forma ere hainbat aldiz dator, baina *Euscal-Errijetako*... eta Eskuizkribuan soilik; inprimaturiko *Icasiquizunac* saileko liburuetan behin ere ez. Bestalde, “consuelo” hitza ageri da, gaztelaniaren erara eta euskarara egokitu gabe: *Gorde bedi legue Santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza guztiac biurtuco dira gueure oneraco, gueure consueloraco, ta alegrija eguijazcoraco*... (*Euscal-Errijetaco*... 42-43. orr.)

Bokalen aldaketaz, gehitzeaz etab. baditu kontuan izateko beste xehetasun batzuk ere; esaterako, hitz-hasieran **a** eta **n**-ren artean zenbait kasutan agertzen nahiz desagertzen den **i** bokala, edota bokalak ixtea nahiz irekitzea. Ikus ditzagun horrelako kasu batzuk:

**Ainchina / ainchinaco**: Hauxe da gehienetan darabilen forma, baina “i” gabekoa ere zazpi bat bider agertzen da; **chi-**

*car* eta *chiqui* darabiltza, baina ez *chiquer*. gaur egun hauxe dela esango nuke Bizkaiko mendebaldeko forma nagusia; *erichi/erechi* bikotean bere forma normala *erichi* du, baina *erechi* ere badarabil noizbehinka; *achequiya* darabil gehiengotan, “e” bokalarekin eta amaierako “a” itsatsiarekin; forma hori 24 bider agertzen da inprimaturiko liburuetan eta eskuizkribuan hauxe da forma bakarra; *achaquiya* bederatzi bider dator; *esquini* dakar eta ez *ei / ai* diptongoarekin; *jaurtegui*: Bokalen disimilazioa gertatu da hemen: *i > e*, eta horrez gainera, bokal arteko kontsonante ahostuna. Bizkaieraz normala da gune horietan kontsonante ahostuna izatea; hala gertatzen da beste partizipio nahiz aditzoin batzuetan ere, esaterako: *ebagi*, *jagi*, *idigi*, *eregi*. Horrelakoetan, jakina, laburdurak gertatzen dira, bokal arteko kontsonante ahostunak galkorrak baitira; *etzin* da darabilen forma bakarra. Horrela gainerako euskalki eta bizkaieraz ohikoak diren formatatik aldendu egiten da pixka bat. Gainerako euskalkietan *etzan* da forma nagusia, bizkaieraz egiten den ekialdean *etzun* eta mendebaldean *etxun / itxun*. Dena dela, aditz trinkoan (sing.) *datza*, *datzanac*, (pl.) *datzazanac*... formak darabiltza beti.

Hitz-amaieran eta atzizki batzuetan “a” egiten du “e”ren orde; esaterako, *-le / -tzaile* atzizkiak *-la / -tzaila* bihurtzen ditu. Azken hau ez beti. Joera hau bere-berea du, baina honelako gehiago ere baditu, esaterako, *aldatza* idazten du gure *aldatze* edo *aldaketa* adierazteko. Hona atzizki honekin datozen batzuk: *eracusla / entzula / salzaila / erosla / onguilla / gaisqui esala / eguilla / jaola / eraguilla / iracurla / galzaila / estalzaila ...*

## 2 Kontsonanteak

L.Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca* liburuan dioena harira dator:

“La confusión total de los dos órdenes de sibilantes es hoy general en Vizcaya, salvo, a lo que se indica, en Marquina-

Echevarría y Bolívar: la fricativa es apical, /s/, pero la africada predorsal. La confusión gana terreno en Guipúzcoa, sobre todo en las poblaciones de alguna importancia".

L.Mitxelenak kontsonante txistukarien nahasketa eta ez-be-reizte honetan salbuespentzat jotzen du ekialdeko bizkaieraren ingurune hau. Hori gure idazlearen garaian ukaezina da eta gaur egun ere entzumen zoli duenak, ingurune horretan, so-ma dezake bereizketa nahiko garbi, baserri inguruetan behin-tzat...

Norbaitzuek nahasketa horren seinale izan zitezkeenak ikusi dituzte gure idazlearen zenbait hitzetan; txistukariak ongi be-reizten dituzten beste euskalkietakoek hutsik gabe "z" darabil-ten hitzetan gure idazleak "s" darabilela; esaterako, *nas, nos, eleisa/elexa, inos, baisen, gaisquin, gaisto* (eta eratorriak), *gox / goix / gois* ("gox" da gehien darabilena; "goix" gutxiago eta "gois" bi aldiz edo; "gos" eskuizkribuan behin...). Hitz bakan horiek "s" kontsonantez idazten dituelako ezin esan genezake Frai Bartolomek txistukarien bereizketa galdua zuenik. Bestera esango genuke: bere obra osoan barrena ongi frogatzen digu era bateko eta besteko txistukariak egoki bereizten zituela. Baina bizkaieraz hitz bakan hauek bilakaera ezberdina izan dute. Hitz horietan, bizkaieraz /xtik /s/rako bilakaera gertatu da.

Kontsonante afrikarietan ere beste horrenbeste gertatzen da: beste euskalkietan "-itz" dena bizkaieraz "-tx" da; esaterako: *(b)anitz / ardx; (b)aitz / dx; gaitz / gdx; bakoitz / bakdx* (hau ez bizkaieraz soilik, baita Iparraldeko euskalkietan ere).

Egia esan, badu beste hitz bat ere beti "s"z idazten duena: "barristau"; ez dakigu zergatik, baina jasota uzten dugu hala dela.

Bizkaieraz ohikoak diren bokal arteko kontsonante ahostu-nak ditugu Frai Bartolomerengan maileguzko hitz batzuetan; latinezko *-atum/-itum/-tatem* bukaeratik datozenak dira berezi-ki: *servidu, escribidu, atrevidu, consentidu, libertadu, deso-*

*nestidadia, virginidadia...* Mailegu zaharretan, ordea, ez da horrelako joerarik nabari: *parcau, bedeincau...* Mailegu zaharagoetan sinkopa gertatzen da: *sosegau; sobrau; adabau; ezcutau; barristau; nabastau; desterrau; manchau; mortipicau; castau; quexau...*

Bada horien artean euskaldunok mailegutzat hartzen ez dugunik ere; esaterako, "naastau", "ezcutau", "barristau". Analogiak bere eragina izan ohi du; gogora dezagun gaur egun Gipuzkoako Urola aldean erabiltzen den "eskau". Beste batzuetan, ordea, honelako zenbait forma, euskaraz zeharo erroturik daudenak bestalde, orain gaztelaniaz zaharkiturik dauden hitz batzuen maileguak izan ohi dira; esaterako, "asmau", "olgau".

Frai Bartolomerengan kontsonanteen disimilazio eta aldaketa batzuk ere baditugu; esaterako: **vereno** (baina *veneno* ere badarabil); **gobait egin** idazten du beti; ez "gogait", "gogaicarrí" etab.; **aloverecuac**: G/B-ren arteko trukaketa. Berez "g" dagokio, erabilera eta tradizioa kontuan hartzen badugu. Hala ere, gure idazleak ez du behin ere erabiltzen "g"duna, "b"duna baizik.

L/N-ren arteko alternantzia: **Onan, onaco...** Forma hauek dira normalenak Frai Bartolomerengan, baina "olan" ere hainbat aldiz erabiltzen du; "olaco", ordea, behin edo bakarrik. **Ultze**: bere eskualdean gaur egun ere erabiltzen den forma bera darabil, hau da, "l"duna eta ez "n"duna, gainerako euskalkietako *iltze* formatik hurbilago dagoena.

P/M // B/M-ren arteko alternantzia: **Imini**: hau du bere forma normala; hain zuzen ere, Bizkaiko mendebaldean erabiltzen den forma ia bakarra. Bost bat aldiz, *ipini/ipintia* ere agertzen dira... **Vende / vendetu**: Partizipio gisa forma honean darabil soilik; "mendian" behin edo behin ageri da ("mende", "menderatu" esangurarekin)

R/D-ren arteko alternantzia agiri duten hainbat adibide datoz haren obran barrena. **Iruri, iduri** eta **irudi** hirurak darabil-

iza. **Laudeun/seideun** ...: bietara darabiltza "ehun" zenbatzai-learn osagai direnak; beste zenbatzaile batzuetan ere nabari da kontsonante-aldaketa; **bederatzi/beredatzi** formen arteko alternantzia ageri du. **Bigar**: behin eta berriro adierazi dugu "i" bokalaren ondoren, loturazko yod (grafiaz *j*) erabiltzen duela, baina hitz hau salbuespena da; behin dator soilik "bi-jar"; gainerako guztietan "bigar". **Bidao**: hemen, hauxe da forma biak darabiltza beste euskalkietako *lepo* adierazteko. **Erromedija**: bi bider dator "erromerija", baina forma normala hura du. **Eran/edan**: inprimaturiko lanetan du "edan", "edana" etab. Bere liburuetan beti idazten du "edan", "edana" etab. Alabaina, eskuizkribua herriko ahoskeratik hurbilago dago, eta hemen bai, hemen forma normala "eran" da. "Usadijo" darabil beti, eta ez "usarijo". **Adin on / arin on**: Biak darabiltza; baina ez dute adiera bera. **Aredijo**: normalean "arerijo" eta "etsai" darabiltza. Behin dakar "aredijo". Ez dakigu hutsa edo nahi gabe itzuri zaiona den. **Aguidaca / aguiraca**: bien arteko alternantzia dago, bakoitzetik hiruzpalau datozelarik.

*R/G*-ren arteko aldaketa: perpaus ilatiboetan, **beraz** forma da nagusitu dena. Hala ere, gure idazleak behin ere ez du erabiltzen bere obra osoan barrena. **Begaz** da haren forma bakarra.

*L/R*-ren arteko aldaketa: **Estari**: bere ohiko forma "estaldu" du, maiz darabilena; baina behin dakar "estari". Honen aztarna "lohi-estari" hitzean somatzen da Markina aldeko euskararen. "Lohi-estaria" zikina edo lohia gutxi antzematen zaion arropaz esaten da batez ere.

Kontsonanteen lekualdatzea: **Alemanija**: horrela idazten du, ziur aski herri-ahoskerari jarraituz. **Solbarda**: hitz hau behin dator eta horrelaxe idatzirik. **Irigo**: gure idazleak hutsik gabe darabil forma hau, eta ez "igaro". Bi adiera ditu Frai Bartolomerengan: batetik *pasatu* eta besterik *nekeak jasan, su-fritu, eraman*. Forma zaharra hura dela dirudi, ekialdeko "iragan" formaren kidekoa eta aditz-arazlearen aztarna ageri duena.

Ohikoak ez diren kontsonante multzoak agertzen zaizkigu batzuetan Bartolomeren testuetan, batez ere zenbait adizkitan. Hitzren erroa ongi gorde nahiak daramala dirudi horretara: **deitscu / dacuszu / eutscun / jantzten / eutsquijon ...**

Markina aldeko euskaran, zenbait hitzetan, **z tz** bihurtzeko joera nabari da; **z**-ren ahoskera markatuak utzitako arrastoa izan liteke...? Dena dela, "erretza" (erraza), "barritz" (berriz, ordea, ostera...) horrelaxe ebakitzen dira. Horregatik, Frai Bartolomeren **vitzi, irabatzi, eitza, atzi, lutzaro** eta abar ez dugu uste gogoak hala eman ziolako asmatuak direnik. "Vitzi" eta honen eratorriak dira formarik normalenak *Euscal-Errijetaco...* eta *Icas*. liburuetan. Ez, ordea, *Icas*. II.an eta batez ere *Icas*. III.an eta eskuizkribuan; azken bi hauetan forma bakarra vizi/vici da..., hemen behin soilik baitator. Beste horrenbeste esan dezakegu "irabatzi" formaz. Hauxe da gehien darabilen forma, baina "t" gabekoak ere maiz darabiltza; hitz hau, hiru edo lau erataria idazten du: **irabatzi** (gehlen darabilen forma), **irabatci, irabazi** eta **irabaci** (askotan).

Bokal arteko kontsonante ahostunei eusteko ahalegina nabari da. Gainerako euskalkietako **ere, bere** idatziko du hutsik gabe, eta ez gaur egun eskualde honetan forma bakarra eta bizkaieraren eremuan nagusi den **be**. Eskuizkribuan **leez**, liburuetan **legez; ezin lei / ezin legui; ez zein / ez zedin; della / dedilla; ein / eguin; euzquiya / eguzquiya; eraotzi / eragotzi ...** Baina inprimaturiko lanetan ere bokal arteko hainbat kontsonante galtzen dira, esaterako, **bagoz, baqui, zaatia, ezautu, illaineco...**

Bizkaieraren ezaugarrietariko bat da galdetzaille, izenordain zehaztugabe, erakusleetako zenbait gunetan kontsonante dardarkariak galtzea: **nok**, eta ez **nork**; **edonok**, eta ez **edonork**; **inok**, ez **inork**; **zek**, eta ez **zerk**; **zetan**, eta ez **zertan**; **ezeta(ra)ko**, eta ez **ezerta(ra)ko**; **atan**, eta ez **artan** eta abar. Bartolomek ere bizkaierazko forma horiek darabiltza ia beti, baina **ezertaco** darabil, kontsonante dardarkariduna...



### III. MORFOLOGIA

#### 1. Deklinabidea

- *Nori* edo datiboa: (mug.) **-(r)t** / (sing.) **-ari** / (pl.) **-ai**
- *Nondik* edo ablatiboa (bizigabea): (sing.) **-ti** / (pl.) **-etati**
- “ “ (biziduna): (sing.) **-a ganic** / (pl.)

#### *eganic*

- *Norantz* edo hurbiltze-adlatiboa: (sing.) **-rutz/ruz**
- *Noraino* edo muga-adlatiboa: (sing.) **-raguino** / (pl.) **-eta-  
raguino**

- *Norekin* edo soziatiboa: (mug.) **-(e)gaz** / (sing.) **-agaz** / (pl.) **-aquin**

- *Zertaz, zerez* edo instrumentala: (mug.) **-(e)z** / (sing.) **-az/-agaz** / (pl.) **-aquin**

- *Zergatik* edo motibatiboa: (mug.) **-gaiti** / (sing.) **-a gaiti** / (pl.) **-ac gaiti**

Gainerako kasuek ez dute ezer aipatzekorik. Beharbada, “a” itsatsidun izenak dira pixka bat bereziak...

- *Nor* edo absolutiboa: (mug.) **-o alava** / (sing.) **-ta alavia** / (pl.) **-ac alavaac**

- *Nork* edo ergatiboa: (mug.) **-e alavae** / (sing.) **-tae alaviae** / (pl.) **-ac alavaaac**

- *Non* edo inesiboa: (mug.) **-tan plazutan** / (sing.) **plazaan** / (pl.) **-eetan placeetan**

- *Noren/zeren* edo genitiboa: (mug.) **-ren alavaren** / (sing.) **-aren alavaren** / (pl.) **-een alaveen**

Bokal-bikoizteak, gorago adierazi dugunez, ez dira hain zurrak, baina joera hori da...

Mugagabeaz ohartxo bat. Benetako maisua dugu horretan, ondorengo adibide hauetan ikus daitekeenez:

*Ez davee beste asieraric euqui ez Erreguiac, ez Erreguinac, ez Guerraguinac, ez Caballeruac, ezda beste Adanen **Semec** edo **alabec** bere (Icas. III, 60).*

*¿Ta au onan izan ezquero, esango dau, Evangelijua sinistuten **davenec**, edo Eleisa Ama Santiaren **semec**, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ez dala pecatu? (Euscal-Errijetaco... 102)*

*Esan daigun gueijago: Ez daucala **compesorec** Eleisaco do-triniaren erreguela, edo neurgarriric, ez Eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen juana garbatu, ta ostera ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu, edo absolvi-du leguizala, esaten deutsanic (Euscal-Errijetaco... 103)*

*Ezin **compesorec** pecatubeetati librau legui, alan pecatu dan ocasinoe jaquinera, bere guraz dotana, ocasinoiari isteco verbia emon artian (Euscal-Errijetaco... 103)*

*ta gurasuac bere ezleusquijue seinu besuetara emongo, edo-  
cein lelengo aguiri **dani** (Icas. III, 78)*

*Edoecin gentil, judegu, nai **beregeri**, emon ceuntsan escubidia, seinac batiatuteco (Icas. III, 45)*

*Onezaz ostian, edoecin **ur berezco** da asco, ta da ona, seinu batiatuteco (Icas. III, 39)*

*¿Iracurri dau moc cristandadeco **liburutan**, alaco ocasinoe jaquinera premina bagaric bere natz juatia, ezdala pecatu mortala? (Euscal-Errijetaco... 102)*

Goiko eskeman ageri denez, ezaguna da, sozietibo eta instrumental kasuetan, singularraren eta pluralaren artean egin ohi duen bereizketa. Hau eskualde honetako eta Gipuzkoako bizkaiera darabiltenen ohiko bereizketa da euskara mintzatu-tuan. Honetan ez dator ekialdeko bizkaiera darabiltenekin bat, J.A.Mogelek, J.J.Mogelek eta Uriartek plurala "-acaz" egiten du-te. Frai Bartolome eta *Manual Vascongado que contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos* liburuxoaren egi-lea dira bakarrik, nik dakidala, (sing.) **-agaz** (pl.)

**-aquin** bereizketari eusten diotenak:

Escu**baquin**, vegu**laquin**, ta arpeguico ger**agaz** guztia lu-xurijaren suba darijona (Euscal-Errifetaco... 64-65).

## 2. Erakusleak

- Absolutiboa (sing.) *au / ori / a* (pl.) *oneec / orreec / areec*
  - Ergatiboa (sing.) *onec / orrec / ac/(arec)* (pl.) *oneec / orreec / areec*
  - Datiboa (sing.) *oni / ari* (pl.) *oni / orrei / ari*
  - Genitiboa (sing.) *onen / orren / aren* (pl.) *oneen / orreen / areen*
  - Soziaz./instrum. (sing.) *onegaz / agaz* (pl.) *oneequin / areequin*
- Instrumentala espide batzuetan: *onezaz gainera, onezaz ostian, onezaz gaineracua, azaz gainera...* (Hauetariko bes-terik ez du erabiltzen eta hauen aldaerarik ere ez)
- *Nola / nolako* aditzondo eta izenlagunaren erantzunak, erakusleekin, honela agertzen dira Frai Bartolomerengan: *onan (olan) / onaco; alan / alaco ...*

## 3. Izenordain pertsonalak

- *Ni / neu; zu / ceu; a / bera; gu / gueu; zubez / ceubec (zeubec); areec / eurec*
- *Nic / neuc; zuc / ceuc (zeuc); ac / berac; guc / gueuc; zubez / ceubec (zeubec); areec / eurec*
- *Nire/ene / neure; zure / zeure; aren / bere; gure / gueure; zuben/zubeen / zeuben/zeubeen; areen / euren/euren*
- *Niri / neuri; zuri / ceuri (zeuri); ari / berari; guri / gueuri; zubei / ceubei (zeubei); ari / euri*
- *Nigaz / neugaz; zugaz / ceugaz (zeugaz); agaz / bera-gaz; gugaz / guengaz; areequin / eurequin/eureequin*

**-Niretzat / neuretzat; zuretzat / zeuretzat; arentzat / berarentzat; guretzat / gueuretzat; areentzat / eurentzat**  
(eureentzat)

**-Nigan; zugan / zeugan; agan / beragan; gugan / gueugan; euregan**

**-Nigana; zugana / ceugana/zeugana; gueugana**

**-Niganic; ceu ganic; à ganic / beraganik; gueu ganic**

(Ez dugu beste formarik aurkitu)

#### 4. Atzizkiak

Atzizkietan oso ugaria dugu Frai Bartolome. Hona hemen darabiltzan atzizkietariko batzuk:

**-ari:** *Emacume dantzacarijaganic apartau zaitte, bere artiaz, ta encantubagaz galdu ez zaguitzan. Ne forte pereas in efficacia illius.*

**-kari:** *Burrucarijac, maquilocaarijac, ta ocasinuetsubac pecatu eiten davee.*

**-dun:** *Oituco baguina gueu, Eleisa-guizonoc, Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu, Moguel, ta beste Euskadun garbijac trauriera.*

**-gin/-kin:** *Ez dauca votguinac, edo promesguinac escubideric, eguin daven promesa, edo votua luzatuteco, ez, beste gauza batera aldatuteco. / gaisguin*

**-le/-la:** *Monteru esaten jacuen baso-jacle batzuc; / neure entzula onac*

**-gile:** *"-gilla" darabil; onguilla; / Rada Alargunaren Liburguillan*

**-tzaille/-tzaila:** *Jesus, gueure Salvatzaille maitia; / pagatzaille cbarra; / zorpagatzaille atzerac; / Jaungoicua da Emorzaille eguijazcua*

**-zain:** *Gueure Arzaina; / seinzaina*

**-bide:** *escubida; / auzi bide; / Asco da, cristinau batec zucen bide pusca bat artutia*

- gintza**: ugazaben pecatu-**guintza** c, ta pecatu-**eraguintza** c; /  
 faungoico paltsuac serbidutiac, gach **guintza** c, asarriac, gorrotuac,  
 odijuiac, ordiquerijac, jaate andijac, ta onetaricuac
- (**k**)**eria**: ordi**querija** c; / zequen**querija** c; / zora**querija**; / ara-  
 guijaren laban**querija** c; / gaisto**querija**; / prestubez**querija**; /  
 oquer**erija**; panpar**erija** c; alpen**erija**; / doto**erija**
- kune**/**-une**: veguiracune; / argui **une**; / illun **une**; / ez dauca uts  
**une** ric
- pen**: munduco gachac luzaro frauteco asp**en** bat
- mendi**: urc**mendi**; / gald**mendi**; / ond**mendi**; / its**mendi**
- (**t**)**asun**: zabat**asun**; / leijat**asun**; / zuze**tasun**; / guiz**tasun**;  
 / ugar**tasun**; / prest**itasun**; / ort**asun**; / ond**asun**
- tza**: testigantza; / ezcontza; / erijotza; / (mugatuan) prailetzia; /  
 abadetzia; / diaconutzia; / subadiaconutzia; / obispotzia; / artzo-  
 bispotzia
- eta**: olgue**eta**; pense**eta** moduba; verbe**eta**; (mugatuan)  
 ezpa**etia** ren, edo gorub**etia** ren
- eria**: un**erija**; / per**erija**; / gazte **eria**
- kada**: erremu**xada**; / osti**xada**; / bot**xada**; / arr**xada**
- kotx**: b**xocha**
- tsu**: ardur**tsu**; / ugar**tsu**; / odot**tsu**; / irau**tsu**; / aix**tsu**; / ba-  
 quet**tsu**; / pisit**tsu**; / barr**tsu**
- turia**: jaqu**turija**
- era**: az**iera**; / ask**era**; / ezaub**era**; / arpegu**era**; / prest**era**; /  
 (mugatuan) vici **eria**
- kizun**: icas**quizun**; / sinis**quizun**; / egu**quizun**; / eto**quizun**; /  
 penso**quizun**; / contu em**quizun**; / esco**quizun**; / artu**quizun**;  
 / eracu**quizun**; / esan**quizun**; / jua**nquizun**
- gei**: gorputz **gei**; / gutzon **gei**; / pecatu **gei**; / monja **gei**
- garri**: nega**garri**; / lotsa**garri**; / ill**garri**; / loti**garri**; / po**garri**;  
 / neu**garri**; / galdi**garri**
- gi**: estagui
- ti**: guzuti; / bilduti

- zale: odol zale; / piesta zale; / dantza zale
- tegi: abude tegi; / stegi; / convidan tegi; / praille tegijsa; / bidao tegijsa
- aldi: assarre aldi; / guiza aldi; / verba aldi; / egunaldi; / jardun aldi
- kor + -za: gaitxoortzia, ilortzia, ta beste onaco asco
- ero: egunero/egun oro/egunoro; / ordu ero; / verbaoro
- ro: lizurro; / deingurro; argurro; / astirro; / zintzorro; / barrirro; / vizirro; / garbirro
- kin: ondoquinac
- sko: andiscote; / idiscu
- tla: nescatlla
- txa: nescacha
- eta: lapuneta
- to: chto; / obato; / errato

Atzizki hauetariko batzuk oso emankorrak dira Frai Bartolomerengan; esaterako,

- garri; -kizun; keria/erla; -tasun; -gin; -gile; -zaille; -la; -ro; -era; -su; -txa (...)

Beste batzuk gutxi erabiltzen ditu. Esaterako, gaur egun egintzak adierazteko hainbeste agertzen diren -keta eta -pen. Hauen ordez, askotan, aditz-izena nahiz partizipioa erabiltzen du izen gisa: *eracuste oneco liburubetan*. Baina: *¿Ta mun dau-quee gurari gaisto onec euren aspena, edo sustraija?*

"Jazoera" forma ez du erabiltzen. Horren ordez "jazo" darambil izen gisa: *Jesus Altaracuaren jazo gozuac*; / *Jazo triste, ta negargarri onec eracusten deuscubez aimbeste Eregec*.

"Zaartzaro" forma ere ez du erabiltzen; "zaartzan" bai: *ba-goz; inoren upaco ardaia edaaten daveenac, ascoren carimuari vijotzian lecu emoten deutseenac, ta zaartzan, besteric ezinda. ezcontza guintziari emoten deutseenac*.

**-tegui** atzizkiak, ia beti multzoa adierazten du eta ez tokia: **convidau teguijeen sartu eria, edo etorri eria cristandadera.** / *Ez da bada sinistuten, Abade teguija, ta Praile teguija jua-ten diriala piestetara, edo eguiten daveela dantzian, gentiac esan gura leusquegun moduban.*

Atzizkiak, ia beti, tradizioaren arabera erabiltzen ditu. Esaterako, **-garri**-k eragile-adiera du tradizioan, eta hala darabil eta ez gaztelaniazko **-ble** atzizkiaren baliokide gisa.

**-Kizun**-ek etorkizunean burutzekoa den egintza adierazten du; batzuetan baita eginbeharra ere: *eguiquizuna* = egitekoa; *artuquizuna* = hartzekoa; *juanguizuna* = joan beharra; *compesaquizuntzat* = konfesatu beharrekotzat... Baina batzuetan atzizkiei eman ahal dutena baino gehiago eskatzen diela esango nuke. Horrela, hitz bakan batzuk osatera bitxia dute eta ez hain erraz onartzekoa. Horrelakoak dira, esaterako, goian ageri diren **gaixcortzia**, **illcortzia**, gaztelaniazko "enfermedad" eta "mortandad" adierazteko, ziur aski. Oraingo euskaldunontzat irensten zailago direnak ere baditu bat edo beste: *adilla* = adimena (adi/aditu + la) / *nailla* = borondatea, nahimena (nai + la): *aciendiaren gainian erabaguija emotera doian guizonac, adilla edo entendimentu arguija ta zurra, vorondate edo nailla arteza ta ondrauba.* Aldaerak ere badituzte forma hauek: "adilari" eta "nailaari": *Gueure arimia, ta arimaco adilarija, edo entendimentuba, ta nailaarija, edo borondatia, ta gorputza bere sentidu guztiaquin Jaungoicuc gueuri duaric emonac dira.*

Beste batzuetan ongi asmatu duela esango nuke; esaterako, "buruguin" hitza. Bere burua ederki gobernatzen duena, gaztelaniazko "vividor" esan nahi du eta bete-betekoa dirudi...

#### IV. BESTE BEREZITASUN BATZUK

Frai Bartolomenen euskararen morfosintasi arloa, hain lan mugatuan, urratsez urrats azaltzerik ez dudanez gero, haren

gauzarik berezienak-edo aipatuko ditut labur-labur, gramatika-sail batekoak nahiz bestekoak:

- Aditzei gagozkiola, bizkaieratik at, eta idatziz bizkaieraz ere bai, gutxi erabiltzen diren adizki batzuk ageri zaizkigu:

. *negui*: baina ezin ucatu **negui**

. *legui*: baina Cerubac prestau davela, esan **legui**

. *guinai*: ezin ucatu **guinai**, chito balijo andicua, ta premina andicua dala au cristinaubarentzat.

. *zinai*: zuc ezin mudau **zinai** Evangelijoco leguia. // euqui **zinaizan** calte guztia.

. *zinaijue*: Ezin umiai emon **zinaijue** aziera peligrucuaagoric codicijarena baino.

. *leguijee*: otseguinari zanetaco odola bere chupauco leusquijuenac, alba**leguijee**!

Ahal erako aditz laguntzaile iragankorra da beti, paradigma ugaritan darabilena. Gaur egun bizkaieraz gehiago erabiltzen diren *neike* / *leike* / *geinke* / *zeinke* / *zeinkie* (*zeinke*) / *leikie* (*leike*) formen balio berekoak ditugu.

Darabilen beste adizki bat ere azpimarratzekoa da: *neuque* / *leuque* / *guenduque* / *cenduque* / *leuquee*; hauek ohikoak dira bizkaieraz, baina objektua plurala denean, gaur egun erabiltzen ditugun *neukez* / *leukez* / *geunkez* / *zeunkez* / *zeunkeez* / *zeunkiez* / *leukeez* / *leukiez* formen ordez, beste hauek darabiltza: *nituque* / *lituque* / *guenduquez* / *cenduquez* / *lituqueez*.

Gaur egun bizkaieraz zabalen dabiltzan *naiten* / *daiten* / *naitela* / *daitela*... formen ordez, gainerako euskalkietan ezagunagoak diren *nadin* / *dedin* (*dein*) / *nadilla* / *dedilla* (*deilla*)... erabiltzen ditu.

*Nork-Nori-Zer* saileko aditz laguntzailea orainaldian, beti da **deu-** eta ez **dau-**; hau ez da Frai Bartolomerena soilik. J.A. Mogel, Añibarro, Astarloa eta bizkaierazko idazle zahar one-



nek hala egiten dute inolako zalantzarik gabe. Bizkaiko ekialdekoak izan nahiz mendebaldekoak, horretan bat datoz. Honela egiten ditu adizki hauek: (niri) *deust / deustazu / deustee* // (hari) *deutsat / deutsa / deutsagu / deustazu / deustee* // (guri) *deuscu / deuscuzu / deuscubee* // (zuri) *deutsut / deutsu / deutsugu / deustubee* // (haiei) *deutseet / deutsee / deutseegu/deutsegu / deutseezu/deutseezu / deutsee* ... Objektu plurala denean, "z" eransten zaie aurreko formei.

Hauek, goian esan dugunez, *Nork-Nori-Zer* aditz laguntzailearen adizkiak dira. Frai Bartolomek *dau-* formako adizkiak ere badarabiltza, baina hauek aditz trinkoak dira beti. Bereizketa, beraz, garbi-garbia da: aditz laguntzailea: *deu-* eta aditz trinkoa: *dau-*. Aditz trinkoa testuinguru nahiko finkatu eta antzekoetan darabil, *bata besteari loturik egon, batak bestearekin zerikusia izan...* esanahia izaten dute ia beti. Honetan ere guztiz bat dator J.A.Mogelekin. Hiru edo lau adibide jarriko ditugu; hauetariko bitan aditz laguntzailea eta trinkoa biak agertzen dirларик:

*Ascotan dantza arinian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita gueratuten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ez deu tseen moduban, escuti dau tsanac, colpez jaso artian; ta gente guztia arixte beguira chaloca (Euscal-Errieto. 69).*

*Baña pecatuban vitzi, peccatu eguin ardura bagaric, peccatuli urteco ezer eguin ez, ta Cerura juango nas, pensau, alcarri ez dau tsa, utseguitia da, engainuba da, jaungoicua tenteetia da (Icas. I, 38).*

*gauza jaquinna da, juramentu gaistuac, blasphemijaac, maldecinoiac, ta bidauac alcarri dau tseena (Icas. I, 149).*

*otseguinac cer zor deu tseen euren ugazabai: ta ugazabac cer zor deu tseen euren otseguina. Alcarri dau tseez bitzubeen eguin biarrac (Icas. I, 221).*

Azpitarratzekoa da, eta aditzarekin zerikusia du honek ere, gure idazleak ez duela "dana", "danak" erabiltzen "guztia" eta

“guztiak” adierazteko; azken hauek erabiltzen ditu soilik, eta zenbait testuingurutan “dirianak”.

Beste xehetasun bat ere bere-berea du Bartolomek: **dozu** adizkiaren subjektua “zu” nahiz “zuek” izan daitekeela. Honelakoak ugari agertzen dira, batez ere *Icasiquizunac* saileko liburukietan: *Sinistu biar dozu*, *neure entzula onac*, *dotrina labur baten ezin erabagui leguizala*, *sail zabal andi oni darraicozan gauza guztiac* (*Icas. III*, 148).

Perpaus osagarrietan, testuinguru batzuetan, *-la / -na* alternantzia agertzen da batez ere bizkaieraz idazten duten batzuegan. Alternantzia hori oso markatua da Frai Bartolomerengan. Hainbat aditu ahalegindu da joera horren legea aurkitzen edo gure literaturaren ilunune txiki hau argitzen, nik dakidala behintzat, guztiz lotu gabe. Menpeko aditza *-la / -na* gobenatzen duen aditz nagusian dagoela, uste dut, gakoak; *-na* bukaera duten Frai Bartolomeren perpaus osagarri gehienak bildu ditut eta *-la* duten asko ere bai. Kasu bakan batzuetan huts egin arren, % 90 ingurutan honako bereizketa hau somatu dut:

Aditz nagusia:

<i>esaten dau</i> .....	<i>-la</i>
<i>jaquin biar da</i> .....	<i>-la</i>
<i>dinot</i> .....	<i>-la</i>
<i>esaten da</i> .....	<i>-la</i>
<i>icusiko dau</i> .....	<i>-la</i>
<i>dino</i> .....	<i>-la</i>
<i>esan daigun</i> .....	<i>-la</i>
<i>eguija da</i> .....	<i>-la</i>
<i>uste dabe</i> .....	<i>-la</i>
<i>entzun dot</i> .....	<i>-la</i>
<i>ikusico da</i> .....	<i>-la</i>
<i>gogoratuten bajacu</i> .....	<i>-la</i>
<i>(...) eracusten deuscuna da</i> .....	<i>-la</i>
<i>ecin ucatu legui</i> .....	<i>-na</i>
<i>gauza jaquina da</i> .....	<i>-na</i>

<i>zenc dacsizu</i>	.....	-na
<i>ondo daqujeela</i>	.....	-na
<i>ez da errez sinistuten</i>	.....	-na
<i>eguija da</i>	.....	-na
<i>pedeco eguija da</i>	.....	-na
<i>Jaungoico onac beequijan</i>	.....	-na
<i>ezautu euan</i>	.....	-na
<i>Jaungoicoaren beraren esana da</i>	.....	-na
<i>esanda gueratu da</i>	.....	-na
<i>gauza aguirija da</i>	.....	-na
<i>ezin dudaan imini gutnai</i>	.....	-na
<i>sinistu euan</i>	.....	-na
<i>ez dira acordaucio</i>	.....	-na
<i>edoceinec dacus</i>	.....	-na
<i>pedeco erahaguija da</i>	.....	-na
<i>autortu biar dira</i>	.....	-na
<i>velnegaz eracutsi euan</i>	.....	-na
<i>-na</i>	.....	icusita
<i>Eleisiaren sinistutia da</i>	.....	-na
<i>contuban jausten bazara</i>	.....	-na
<i>ixflie enqui</i>	.....	-na
<i>zucen dacusgu</i>	.....	-na

"Eguija da" bi sailetan agertu zaigu: *Baita da eguiija*, plaza-co piestara, ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac, eta gorrac, edo umiac ezbadira) ondo *daqujeda* bigarren juate aldico: juaten dirian guztian, edo piestariuz, edo piestaan, edo piestia amattuta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxuriija guztiazen testigu izatera duazana (Euscal-Errijetaco... 99-100).

*Eguiija da*, nos bait olqueetia naturaleciac escatuten davena. Baita, cetan, edo atan olgau leitequiuna bere (Euscal-Errijetaco... 189).

Argi dago -na forma markatua dena eta -la arrunta; hura zerbait ziurtzat, ageritzat, jakintzat jotzen denean darabil; hau, berriz, besterik gabe zerbait baieztatzen denean. Goiko bigarren "eguiija da" hori "gauza jaquina da" esaldiaren esanahi

berekoa da. Badakit honek azalpen sakonagoa beharko zukeena, baina honelako lan batean haren euskararen ezaugarri nagusienak agertzea zen helburua eta ez besterik.

Beste hainbat zertzelada agertzeko asmotan heldu nion lanari, baina irakurle saiatuenak ere etsita eta zeharo gogait eginda gera ez daitezen amaitzera noa bat-batean.

*Luis Baraiazarra Txertudi*